

3. Aniztasun-atzizkia

1 Bete esaldietako hutsuneak hitz hauekin.

jendetza	poltsakada	basokada	hondartza
belartza	elurtza	dirutza	betekada

- Udan eta neguan
Horiek dira nire gustuko oporrak.
- Nolako ! bat esne
baino ez zait falta bapo gelditzeko.
- handia zuen hark.
bat txanpon eman zion bakoitzari.
- Izugarritzko bildu zen
horretan aurreko asteburuan.



2 Hitz hauetako zeinek hartzen du -eria atzizkia? Idatzi.

entzule:	ikusle:
hondar:	biztanle:
gazte:	belar:
tresna:	maitasun:

3 Bete esaldiak goiko ariketan sortu dituzun hitzekin.

- Irratiko erakartzeko, zozketa antolatu dugu.
- Euskal Telebistako hirugarren kateko umeek osatzen dute.
- Herriko guztia bildu da gazte-txokoko bileran.
- Euskal Autonomia Erkidegoko zahartzen ari omen da.
- Garajeen dugu konponketak egiteko guztia.

4 Lotu esapideok dagokien esanahiarekin.

1. Neska-mutil guztiak errenkadan jarri dira.
2. Txupinazoan, gizateria elkartu zen plazan.
3. Txantxarturiko haginean ziztadak nabari zituen.

☐ jendetza bildu

☐ mina izan

☐ ilara osatu